

## I. ADITZ SINTETIKOAK IRAGANEAN (2)

- Aditz trantsitiboen denborak eta aspektuak honako hauek dira :

	orainaldia			iragana		
'jadanik'	EKARRI	DUT	he traido	EKARRI	NUEN	traje
'beti'	EKARTZEN	DUT	traigo	EKARTZEN	NUEN	traia
'gero'	EKARRIKO	DUT	traeré	EKARRIKO	NUEN	traeria/habria traido

Aditz sintetikoak, hemen ere, orainaldi **puntuala** edo iragan **puntuala** egiteko erabiltzen dira :

'oraintxe' : DAUKAT, DARAMAT, DAKART...

'orduantxe' : NEUKAN, NERAMAN, NEKARREN...

- Beraz, orain ikasiko ditugun **NEUKAN**, **NERAMAN** eta **NEKARREN** adizkiak ere puntualak dira, iraganeko momentu puntual eta jakin bati dagozkionak.

*La referencia a ese momento puntual y concreto aparece a veces en la misma oración :*

Piketean iritsi zenean, ibita **zeukaten** denda

Cuando llegó el piquete, **tenian** cerrada la tienda

Istripua izan zuenean, abiadura handiegia **zeraman**

Cuando tuvo el accidente, **llevaba** excesiva velocidad

Eskerrak lagundu didazun lehen, bete-betea **nekarren** bolisa

Gracias a que me has ayudado antes, **traia** la bolsa completamente llena

*Otras veces dicha referencia queda implícita en el contexto :*

Kartanik onenak **zeuzkanak** irabazi zuen

Ganó el que **tenia** las mejores cartas

Zintzilik **zematzen** frakak

**Llevaba** los pantalones colgando

Atzoko egunkariak **zekarren**

Lo **traia** el periódico de ayer

*Con frecuencia estas formas verbales llevan los sufijos que ya conoces :*

Ama gaixorik **zeukala** esan zuen Maitek

Egunkariak **zekarrena** ez zen egia

Karga handiegia **zermalako** jarri diote multa

## I.1. NEUKAN - NEUZKAN

• Forma:

(nik) ...	<b>NEUKAN</b>	-	<b>NEUZKAN</b>
(zuk) ...	<b>ZENEUKAN</b>	-	<b>ZENEUZKAN</b>
(hark) ...	<b>ZEUKAN</b>	-	<b>ZEUZKAN</b>
(guk) ...	<b>GENEUKAN</b>	-	<b>GENEUZKAN</b>
(zuek) ...	<b>ZENEUKATEN</b>	-	<b>ZENEUZKATEN</b>
(haiek)...	<b>ZEUKATEN</b>	-	<b>ZEUZKATEN</b>

• Erabilera:

**non eduki:** Armairuan neukan neguko arropa  
Eskiak ganbaran neuzkan  
Seme zaharrena Amerikan zeukaten

**nola eduki:** Estuegi zeukan alkandora  
Liburuz beteak zeuzkan apalak  
Aurreko leihoak itxita zeuzkaten

**edo:** Atzo neukan partidua  
Mikelek zeukan giltza

## ARIKETAK

1. Aditz-formak ikasteko, pasa itzazu **iraganera** ondoko esaldiak.

1. Etxe guztia koadroz betea daukat.
2. Non daukazu udan irabazitako dirua?
3. Alfonbra azpian daukazue giltza.
4. Ganbaran ez daukagu ezer.
5. Behar duten guztia daukate frigorifikoan.
6. Lurdesek etxe ondoan dauka lantegia.
7. Zerga guztiak ordainduta dauzkat.
8. Txipiroiak daukagu afaltzeko.
9. Poltsikoak beteegiak daukazue.
10. Arantxak ohe azpian dauzka zapatak.
11. Kajoian daukazu bonobusak.
12. Mutilak zabarrak dira: tresna zaharrez beteak dauzcate aldagelak.
13. Buruan gauza gehiegi daukazula uste dut.
14. Afaltzeko daukaguna zure gustokoa da.
15. Dena jasota daukatenean pizten dute telebista.
16. Besoa okertua dauka eta ezin da eskolara joan.
17. Pailazoa ematen duzu; frakak luzeegi daukazu.
18. Libururik gehienak beste gelan daukagu.
19. Ez daukagu nora joan.
20. Giltza aitak dauka.

2. Bete itzazu hutsuneak **eduki** aditzaren iragana erabiliz (gogoan izan batzuek **-en, -ela, -enean, -elako** edo horrelako atzizkiren bat daramatela):

1. Ez ... karnetik eta horregatik ezin nuen autoa gidatu.
2. Lagun guztiak haserre ... Juanitok, beti adarra jotzen aritzen baitzen.
3. Loreontzi politikak genituen balkoian, baina lorerik gabe ...
4. Zigarroa ahoan ... sartu zen Isabel bulegoan.
5. Oso jantzi politikak ... iaz danborradako haurrek.
6. Zergatik ez zenuen jantzi traje urdina? Armairuan ... , tintoreriatik ekarri berria.
7. Zerbait gertatuz gero ere, ez genuen urrutira joan behar; aurre-aurrean ... anbulategia.
8. Pistolak eskuan ... sartu ziren lapurrak banketxean.
9. Balkoian ... guk butano-bonbonak. Seguruago omen zeuden han.
10. Urte hasieran txukun-txukunak ... Arantxak liburuak; orain, zirriborroz be-teak dauzka.
11. Gasolina gutxi ... depositoan eta ez ziren urrutira iritsi.
12. Adizue, norako presa ... atzo? Ez al zeundeten ondo gure etxean?
13. Egun osoa irakurtzen pasatu nuen eta gauerako nekatuak ... begiak.
14. Atzo parrandan ibili omen zineten. Non ... haurrak? Amonaren etxean?
15. Partidua irabazia ... oina okertu eta erretiratu behar izan zuen.
16. Nahi zuten guztia ... eta hala ere ez ziren pozik bizi.
17. Etxean ... altzari zaharrak bota eta berriak erosi nituen.
18. Ez zenuela giltza aurkitzen? Ez al ... bada poltsikoan?
19. Udaltzaina zuen bila zebilen; ordaindu gabe omen ... zergak.
20. Altuegi ... Nereak musika eta goikoek ezin zuten lorik egin.

3. Euskaratu:

1. Estaba tranquilo, porque tenía el dinero en sitio seguro.
2. La casa de Bilbao la teníamos vacía.
3. Manu tenía mis discos.
4. Tenían la mejor habitación de la casa y aun así no estaban contentos.
5. ¿Dónde tenías los cigarros? Tenía ganas de fumar y no encontré ni uno.
6. Tenían el frigorífico lleno de comida.
7. Cuando llegué a tu casa, tenías la puerta cerrada con llave.
8. Entraron los que tenían el carnet allí.
9. La foto que tenía en la mesa era de sus hijos.
10. Teníamos la casa llena de gente.
11. ¿Por qué teníais cerradas las ventanas?
12. Cuando volví del monte, tenía las botas destrozadas.
13. Estaban tranquilos, porque tenían la casa asegurada.
14. Cuando llegamos, tenían la cena preparada.
15. No podíamos salir, lo teníamos todo por hacer.
16. La casa estaba libre hasta mayo; a partir de mayo la tenían alquilada.
17. Maite no vino; tenía al marido en el hospital.
18. ¿Sabes dónde tenía Roberto el dinero? ¡Debajo del colchón!
19. Tenías la ropa completamente mojada.
20. Tenían al enemigo en casa.

**1** *Irakurgaia*

**LASAIEGI ZEUZKAN BETAURREKOAK**

Emakume zahar bat hirira joan zen behin erosketak egitera. Etxeko gauzak erosi ondoren, gaixorik zegoen lagun batentzat ere egin zituen erosketa batzuk.

Azkenean, boltsa bete-betea zeukala, betaurreko denda batean sartu zen.

Dendaria betaurrekoak atera eta emakumea probatzen hasi zen. Lehenbizi pare bat, gero bestea, ondoren beste bat... , baina ez zuen gustokorik aurkitzen. Denek bazeukaten zerbait. Hauek estuegiak ziren; beste hauek lodiegiak; hirugarrenak, berriz, lasaiegi zeuzkan...

Dendaria pazientzia handiko andrea zen eta ez zen haserretzen. Hantxe ari zen, betaurrekoak atera, gero jaso; beste batzuk atera... Zeuzkan modelo guztiak atera zituen irribarrea galdu gabe. Alferrik izan zen, ordea. Amona hark ez zuen gustoko betaurrekorik aurkitzen.

—Lasai, andrea —esan zion dendariak patxadaz—. Ez larritu. Aurkituko ditugu azkenean betaurreko egokiak. Oso zaila izaten da behar bezalakoak aurkitzen.

—Horixe zaila dela —amonak serio—. Batez ere, lagunarentzat direnean.

**a. Erantzun:**

1. Hirian bizi al zen emakumea?
2. Zer zeukan boltsan, betaurreko dendan sartu zenean?
3. Ondo al zeuzkan aurrena probatutako betaurrekoak?
4. Lan erraza izaten al da gustoko betaurrekoak aurkitzea?
5. Amonak zailagoa zeukan hori. Zergatik?

**b. Testua jarraituz, amaitu ondoko elkarrizketaren esaldiak.**

- Amonak: —Betaurreko hauek .....
- Dendariak: —Estuegiak? Ez larritu, hemen .....
- Amonak: —Hauek, berriz, .....
- Dendariak: —Eta beste hauek .....?
- Amonak: —Hauek ere ez .....
- Dendariak: —Egon, beste modelo bat .....
- Amonak: —Ez, bada, hauek ere ez .....
- Dendariak: —Lasai, andrea, zaila izaten da .....
- Amonak: —Bai, batez ere .....



## GAZTE IKASIA

Gazte bat presaka sartu zen behin herriko bibliotekan. Bibliotekari zaharra-  
rengana joan zen eta, 'egun on' ere esan gabe, honela galdetu zion urduri:

—Barkatu, jauna, lehengo astean liburu bat hartu nuen hemen. Greziako arte-  
az ari zen...

—Bai, gogoan dut.

—Nola zuen izenburua?

Bibliotekari zaharra poztu egin zen. Horrelako liburuak aholkatzen zizkien be-  
ti gazteei, baina inork ez zuen kasurik egiten. Abentura-nobelak eskatzen zituzten  
denek. Hark, ordea, kultura maite zuen.

—Bai, gogoan dut zein liburu zen. Berriz eraman nahi al duzu etxera? Oso in-  
teresgarria zen, ezta?

—Interesgarria? Bai zera! Izugarri itsusi eta aspergarria zen. Interesekorik ezer  
ez zeukan. Hamargarren orritik aurrera ez nuen egin.

—Orduan, zertarako...?

—Begira, hemendik irten nintzenean, etxerako bidean, neska bat ezagutu  
nuen. Beste paperik ez neukanez, liburuan idatzi nuen neskaren telefono-zenbakia.  
Horregatik behar dut liburua.

→ a. Aurkitu testuan hitz edo esaldi hauen antzekoak:

lasterka	titulu	aintzat hartu	gogoratzen naiz
ostera	liburutegi	etxerantz nindoala	hori dela-eta

→ b. Erantzun:

1. Ondo gogoratzen da bibliotekaria gazte hartaz. Zergatik?
2. Nolako liburuak eskatzen dituzte gazteek gehienetan?
3. Asko ikasi al zuen gazteak antzinateko arteaz?
4. Gazte harekin bahintzat asmatu zuen bibliotekariak, ezta?
5. Zergatik idatzi zuen liburuan neskaren zenbakia?

→ c. Testua jarraituz, amaitu ondoko elkarrizketaren esaldiak:

Gazteak:	—Barkatu, joan den egunean .....
Bibliotekariak:	—Bai, .....
Gazteak:	—Gogoratzen al duzu .....
Bibliotekariak:	—Jakina, .....
Gazteak:	—Berrito .....
Bibliotekaria:	—Ederki, oso interesgarria .....
Gazteak:	—Interesgarria? Ez, .....
Bibliotekariak:	—Orduan, .....
Gazteak:	—Begira, .....

## I.2. NEKARREN/NEKARTZAN - NERAMAN/NERAMATZAN

### • Forma:

(nik)	...	NEKARREN	-	NEKARTZAN
(zuk)	...	ZENEKARREN	-	ZENEKARTZAN
(hark)	...	ZEKARREN	-	ZEKARTZAN
(guk)	...	GENEKARREN	-	GENEKARTZAN
(zuek)	...	ZENEKARTEN	-	ZENEKARTZATEN
(haiek)	...	ZEKARTEN	-	ZEKARTZATEN

(nik)	...	NERAMAN	-	NERAMATZAN
(zuk)	...	ZENERAMAN	-	ZENERAMATZAN
(hark)	...	ZERAMAN	-	ZERAMATZAN
(guk)	...	GENERAMAN	-	GENERAMATZAN
(zuek)	...	ZENERAMATEN	-	ZENERAMATZATEN
(haiek)	...	ZERAMATEN	-	ZERAMATZATEN



### • Erabilera:

*Galdegaia objektua da askotan (zer):*

Ibaiak ur asko zekarren  
Egunkariak berri txarrak zekartzan  
Esku hutsik zetozen; ez zekarten ezer

Autobusak jende gehiegi zeraman  
Denbora luzea neraman horren zain  
Fraka berriak zeramatzan

*Baina askotan **non, nola, nondik, nora...** izaten dira galdegaia:*

Besapean zekarren Txarok egunkaria  
Garajera genekarren autoa  
Pozik zetozen arrantzaleak, beteta baitzekarten ontzia

Lotuta neraman zakurra  
Eskuan zeneraman euritakoa  
Hotz egon arren, jantzi gabe zeraman berokia

*Askotan, azkenik, subordinazio atzizki eta guzti erabiltzen dira:*

Irakurri al zenuen atzoko egunkariak zekarrena?  
Karga handiegia zeramalako erori zen  
Trenak jende gehiegi zeramala uste dut

# ARIKETAK

## 1. Pasa itzazu *iraganera* ondoko esaldiak:

### EKARRI

1. Paper polit batean bildua dakar oparia.
2. Maleta handi batean dakargu arropa guztia.
3. Adizu, Roberto, zer dakarzu besapean?
4. Mendiko tresnak dakartzate maileteroan.
5. Berri txarrak dakartzat zuretzat.
6. Kostata dakarzue haurra eskolara.
7. Haragia dakart afaltzeko.
8. Berri onik ba al dakarte egunkariak?
9. Mikelek karteran dakartza liburuak.
10. Hodei haiek euria dakarte.

### ERAMAN

1. Jendeak denbora luzea darama oporren zain.
2. Ez daramagu ezer amonarentzat.
3. Hotz handia dago, baina hala ere gona motza daramate.
4. Betaurreko ilunak daramatzat, gutxiago nekatzeko.
5. Aurpegi serioa daramazu: zer duzu?
6. Depositoa betea daramazue.
7. Konpontzera daramatzagu zapatak.
8. Gerritik zintzilik daramatzate giltzak.
9. Atzekoz aurrera daramazu jertsea.
10. Ez du betaurrekorik behar; apaingarri daramatza.

## 2. Bete itzazu hutsuneak *ekarri* eta *eraman* aditzen iragana erabiliz (gogoan izan batzuek *-en*, *-ela*, *-enean*, *-elako* edo horrelako atzizkiren bat daramatela):

### EKARRI

1. Mantso-mantso zetorren ontzia, karga handia bait... .
2. Aita bolantean zetorren bitartean, semeek bultzaka ... autoa.
3. Gauza asko erosteko asmoa ...; baina ezin izan nuen asmo hori bete, garestiegi baitzegoen dena.
4. Pozik zegoen, egunkariak berri pozgarriak bait... .
5. Alferrik etorri ginen; guk ... makina ez zen haiek eskatu zutena.
6. Lanetik zetorren eta, jakina, nekatu-aurpegia ... .
7. Ikustekoa zen zuek ... aurpegia!
8. Ea nik zer ... jakin nahi zuten denek.
9. Gurrpil biak zulatuta ... iritsi zen txirrindularia helmugara.
10. Gerrikoa jarri gabe ... eman dizute multa.

## ERAMAN

1. Jende asko ... , polikiago joaten zen.
2. Etxetik atera zinetenean, itxura egokia ... .
3. Ezin izan nuen kutxazainetik dirurik atera, ez bai... txartela karteran.
4. Non erosi zenuen atzo soinean ... alkandora urdina?
5. Ezin izan ziren sartu, gorbatarik ez ... .
6. Ospitalera ... (guk) hil zen ama.
7. Nota onak ... , pozik joaten zen Mikel etxera.
8. Kalera irten naizenean, garbi-garbiak ... zapatak.
9. Aurreko ilaran zihoazenek pankarta handia ... . Atzekoek, berriz, ez zeramaten inolako pankartarik.
10. Istripua gertatu zenean, abiadura handiegia ... trenak.



## Testuak lantzen

### **1** Irakurgaia

#### LOTERIA EROSI ?

Suerte txarreko gizona zen Alberto. Dena oker egiten duten horietakoa. Gainera, aspaldi hartan lanik gabe zegoen eta nahiko larri zebilen. Hamar hilabete zeramatzan horrela eta, itxuraz, ez zuen lanik aurkitzeko itxaropen handirik. Langabezi-ko dirua hartzen zuen, hori bai, baina gutxiegi zen hura familia mantentzeko. Emazteak etxeak garbituz zerbait irabazten zuen eta horri esker bizi ziren, nahiko estu eta larri, senar-emazteak eta bi seme-alabak.

Beraz, ekonomia estua zegoen etxe hartan, juxtu-juxtu iristen baitzen dirua hilabetea pasatzeko. Ernaztea zen kontuak zeramatzana. Baita zorrotz eraman ere. Etxeko gastuetarako behar zena uzten zion egunero gizonari, baina ez gehiago. Izan ere, bestelako gastuetarako ez zegoen etxe hartan dirurik.